

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUD**DESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE**

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 45 milioi euro inguru bideratu ditu 2007tik automozioaren sektorera

*Gainera, enpresei babesa eman zaie berrikuntza prozesuetan kenkari fiskalen bidez*

Viernes, 16 de septiembre de 2011

Nafarroako Gobernuak "Nola indartu daiteke Nafarroako automozioa munduko merkatuan?" gaiaren inguruko laneko bilera egin du gaur goizean CITEAN zentro teknologikoaren egoitzan. Bilera horretan, sektoreko ordezkariak ibilgailuen merkaturia eta haien ikuspegiak aztertu dituzte.

Nafarroako Gobernuak 45 milioi euro inguru bideratu ditu 2007tik I+G+B proiektu eta inbertsioetara eta enpresei babesa eman die berrikuntzako prozesuetan kenkari fiskalen bidez.

Gaurko bileran Ivan Hodac Ibilgailuen Ekoizleen Europako Elkarteko (ACEA) idazkari nagusia; Jorge San Miguel Nafarroako Gobernuako Enpresa eta Berrikuntza zuzendari nagusia; Luis Álvarez de Eulate CITEANeko zuzendaria; Ramón Bultó Volkswagen Navarrako Produktuen alorreko zuzendaria; Adelfio Zanat Icer Brakeseko zuzendari teknikoa eta, Europako Parlamentuaren ordezkari, Pablo Zalba eurodiputatu nafarra izan dira.

Automozioa Nafarroako industriako sektorerik garrantzitsuena da. 2010ean aurreko urtean baino % 16,2 gehiago ekoiztu zuen, 4.678 milioi euroren truke. Sektore hori Nafarroako ekonomiako garrantzitsuena ere baliteke izatea. Industriako Balio Erantsi Gordinaren (BEG) % 18,1 ematen du eta Nafarroako ekonomia osoaren % 4,2.

Enpleguari dagokionez, sektoreko 114 enpresetan 11.386 langile daude, eta horiek Foru Erkidegoko langile guztien % 4 dira. 2010ean, sektoreko enpleguak % 3 egin zuen gora aurreko urtearekin alderatuta, eta Nafarroan enplegu gehien sortu zuen sektorea izan zen.

Sektoreak Nafarroako ekonomian duen garrantzia estatu osoarentzat duena baino askoz handiagoa da. Estatuan, automozioa industriako BEGren % 8,3 da (% 18,1 Nafarroan) eta enpleguaren % 1,1 sortzen du (% 4 Nafarroan).

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Automozioaren Klusterra sortzea bultzatu zuen. Kluster horretan batzen dira sektoreko eragileak (enpresak, agente sozialak, zentro teknologikoak eta unibertsitateak) eta, horren bidez, Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroa (CEIN) sozietate publikoa dinamizatzen da modu koordinatuan lan egiteko sektoreko interesen eta erronka estrategikoen alde.

Jorge San Miguel Nafarroako Gobernuako Enpresa eta Berrikuntzako zuzendari nagusiak gaurko bileran esan du "Nafarroa Moderna Planean

zehaztutako ildo estretgikoetan oinarrituriko ereduaren aldeko apustua egiten ari dela, berrikuntzarako eta enpresek aurrera egiteko leku erakargarria izaten jarraitzeko". Hazkuntza horren oinarria "gure enpresen lehiakortasuna handitzea eta horien arteko lankidetzaren esparrua" izan behar da. San Miguelek adibide gisa Europako Inbertsio Bankua jarri du, izan ere, "plan honen aldeko apustua egin du 250 milioi euro emanaz datozen hiru urteetan Plan Modernarekin bat datozen sektoreetako proiektuetan inbertitzeko; horien artean, ibilgailu iraunkorraren bidez automozioaren sektorearen garapena dago".

Azkenik, Luis Álvarez de Eulate CITEANeko zuzendariak esan du berak zuzentzen duenaren moduko zentro teknologikoak "Nafarroan espezializaturiko azpiegituren eta giza baliabideen eskaintzari balioa eman diezaiekeela. Guztion lana da baliabide hori bi helburu kontuan izanik erabiltzea: gure erkidegoan ezarri